# GIZARTE, HEZKUNTZA ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEA

Zerbitzu honek **gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko laguntza** ematen die familiei, beren kargura dituzten **pertsonen bizikidetza eta zaintza egokia hobetzeko** helburuarekin.

Banakako, familiako edo taldeko esku-hartzeak eskaintzen ditu, etxean zein etxetik kanpo, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze programekin. Zerbitzuen artean **informazioa, segimenduaren balorazioa eta gizarte-laguntza** daude.



## NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezaketen pertsonak:

- Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak.
- Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak.
- Babesgabetasun-arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden adingabeak.

## NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzua eskatu aurretik, beharrezkoa da hitzordua izatea gizarte-langile batekin, zure premiei hobekien erantzuten dien zerbitzua den ala ez batera baloratzeko eta sartzeko baldintzak betetzen diren erabakitzeko. Hitzordua telefonoz edo aurrez aurre eska dezakezu gizarte-zerbitzuetan bertan edo Abiapuntun.

## KOSTUA

**DOAKO** zerbitzua da.

## EUSKUDUNTZA

Udal-eskumena:
Ermuko Udala

943 179 161

Erdikokale 21,
48260 Ermua